

# Bero-beroan

## Isabel Celaáren zentzugabekeria

“HORTAZ, heziketaren helburuak –baloreak eta ezagupenak transmititzea– helburu linguistikoekin nahastu gabe, Derrigorrezko Hezkuntzaren bukaeran euskaraz zein gaztelaniaz ahozko eta idatzizko trebetasun nahikoak izatea da, gure ustez, hezkuntzaren lehen helburua. Helburu hori bera ezarri zuen 1990ean Hezkuntza Sistemaren Antolamendu Orokorrerako Lege Organikoak (LOGSEk, hain zuzen ere)”. (2005eko azaroan LARRUN-en esanak). Hau idatzi zuenean, Isabel Celaá PSE-EEko bozeramailea zen Eusko Legebiltzarreko Hezkuntza eta Kultura batzordean. Lehen

Hezkuntza, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza eta Batxilergorako curriculum egitasmoak prestatzen ari diren honetan, Kultura sailburuak adierazi du elebitasun orekatua lortu nahi dutela, euskara eta gaztelania parekatu. Ados, euskarak gustura hartuko lituzke gaztelaniak dituen erabilera esparruak, poztuko ginatke euskarak txoko guztietarako tentakulu luzeak izango balitu.

Alabaina, ederki dakigu hizkuntza bataren eta bestearen abiapuntuak ez direla berak, eta irteera puntu beretik atera ez direnak helmugara ez direla batera iritsiko, ez bada bereziki bultzatzen.

Celaáren diskurtsoa, euskara lehenesteari utzi eta gaztelania eta ingeleza indartzea, zilegi litzateke

baldin eta helburuekin bat etorriko balitz. Baina nola nahi duzu sinestea zuen helburua dela Derrigorrezko Hezkuntza bukatutakoan ikasleek euskaraz zein gaztelaniaz ahozko eta idatzizko trebetasun nahikoak izatea? Ahaztu al zaizkigu 2005ean Hezkuntza Sailak aurkeztu zituen euskararen B2 maila neurtzeko DBH-4ko ikasleei egindako azterketaren emaitzak?

Zentzugabekeria da helburuak eta bitarteko pausoak aurkako norabidean jartzea.

### BAHEA

Xabier Lasak Berrian esanak:  
“Xabier Riezu programazioburuak [Herri Irratikoak] adierazi berri du euskarak programazioaren %30eko tokia daukala; hori bai, onartu behar izan du ia ez dela agertzen ordutegi nagusian. %30aren zifra aipatzeak, dirudienez, trikimaina nahasgarri bati erantzuten dio, errealitate lotsagarri bat ezkutatzeko xedez. Irrati pribatu batek irauteko gaztelarera jo behar duen printzipioa onar daitekeen arren, eguneroko entzuleek ondo dakigu %30a ez dela inondik ere betetzen”.

Paula Kasaresek gipuzkoaeuskara.net-en esanak:  
“2009ko uda hasieran Nafarroako Gobernuak euskararen egoera eza-gutzeko egin zuen *Euskararen egoera Nafarroan 2008* inkesta soziolinguistikoa eman zuen argitara. Inkesta hori Gobernuak berak bost urte lehenago egindako *Estudio sociolingüístico sobre el vascuence en Navarra. 2003* inkestaren aldean jartzen badugu egoerak konparatzeko asmoz, inkestaren balio konparatibo eskasaz ohartuko gara. Bi inkestek galdetegi desberdina izan dute oinarri eta zaila da bi ikerlanen artean konparaketa sistematikoa egitea, galdetegien item bakar batzuk baino ez baitira bietan errepikatzen”.



Honelako albisteak egunero irakurtzeko, jaso hari@DOAN e-postaz:  
[www.argia.com/harpidetza\\_haria.php](http://www.argia.com/harpidetza_haria.php)

### TALAIAN

## Non dago nazio kutxa?

Politikakeriak –Euskal Herriaren batasunaren etsaiek antzetzua– egoera gorabeheratsua eragin du gure nazio ekonomian, eta bereziki gure finantza erakundeetan. Duela gutxi arte Hego Euskal Herriko lau aurrezki kutxak elkarlanean ari ziren: BBK, CAN, Kutxa eta Vital. Aurrezki Kutxen Federazio Euskal Nafarrean sartuta zeuden. Kolaborazio planen barruan, urteroko Memoria ere eskaintzen zuten, batera egindako ekintzen emaitzak emanez. Gero, arrazoi politikoak ere tartean zirela –hau da, nazio kutxa baten edozer zantzu saihesteko– Hegoaldeko lau kutxen arteko lotura organiko hori diluitzen joan zen. Ondoren, EAEko hiru kutxen arteko fusioa egiten saiatu ziren, eta hemen ere arrazoi politikoak medio –botere protagonismoarengatik–, fusioa ez zen aurrera atera.

Testuinguru horretan bi fusio posibleren berri eman zaigu orain: bata, Nafarroako CAN eta Kanarietako kutxa baten artekoa; eta bestea, Bizkaiko BBK-k Caja Castilla La Mancha-rekin egitekoa zuena –azkenean huts egin du, joan den astean Cajasturrek erosi baitzuen kutxa hori–. Komeniko litzateke CAN eta BBK-ko ordezkariak eta arduradun politikoak esplikatzea, ea zergatik ez den aurrera egiten Hegoaldeko lau kutxen fusio naturalarekin, eta aldiz, euskal ekonomia eta politikatik hain urrun dauden beste erakundeekin fusionatzeko operazioak egitera jotzen duten. Euskal Herriak berezko finantza erakunde indartsua behar du: gure gizartearen orainari eta geroari aurre egin eta gizarte hori berdinagoa izateko, gure enpresak lehia-korrigoak eta berritzaileagoak bihurtzeko, eta hortaz, enplegua mantendu eta pobrezia poltsak saihesteko. Erakunde horrek nazio kutxa handia izan behar luke, eta Iparraldera ere hedatu beharko litzateke. Gure berezko gune soziopolitikotik kanpo dauden erakundeekin fusionatzea ez da bide hobereena hori lortzeko.

Juan Mari Arregi